

## BIDAIA HANDIA

Bernard Scott, hamabost bat urteko mutila, asmatzailea zen. Mutiko eskoziarrak aitona-amonek bere urtebetetzean oparitutako bizikleta hartu eta ukitu batzuk eman zizkion; ezin hobea izan zitekeen arrebari agindutako bidaia handirako. Bere arreba bederatzita inguruko neskatxa alai zen. Anaia-arreba ilegorrien gurasoak oporretara joatekoak ziren Londresera; hamabost egun igaroko zituzten bertan. Bitartean, Bernardek geratu beharko zuen arreba zaintzen; hortaz, neskatoa entretenitu nahi zuen neba ona zela erakusteko. Asmatzaile gazteak bidaia handirako makina bat prestaturik zuela esan zion Aliceri.

Heldu zen gurasoak kanpora joateko eguna. Bernard, zerbait aurkituko zuelakoan, postontzira hurbildu zen. Giltza hartu, postontzia ireki eta ... erdi puskatutako mapa zaharkitu bat aurkitu zuen! Arrebari altxor baten bila joango zirela esan eta, hark sinesteko, mapa amu ezin hobea izango zela pentsatu zuen. Mapa zehatzago behatuz, Bernardek benetakoa zela susmatu zuen. Gainera, "X" handi bat ageri zen izkina batean; Menorcan zehazki. Alice tematiak, anaiari behin eta berriro errepikatu zion makina berezi hori erakusteko gurasoak etxetik joan bezain pronto; lortu zuen azkenean. Txunditurik geratu zen makina liluragarria ikustean: tandem bizikleta baten itxurakoa izanagatik, ez zen ibilgailu arrunta. Oso antzinako erlojuen mekanismoa antzematen zitzaion pedalen ondoan, baita globo bat ere bizikletaren bi gurpiletatik sokekin lotuta hegan egin ahal izateko. Etxean zituen izara zaharrekin eginikoa izango zen agian. Hastear zegoen, azkenean, hainbeste amestutako bidaia handia! Begirada guztietatik libre, Bernard pedalei indar biziz eragiten hasi zen, baina bat-batean ... tramankulua zerurantz abiatu zen txoria bailitzan! Hegan hasterakoan, anaia-arrebak txunditurik zeuden arren kezka igartzen zitzairen. Ez zekiten nola lur hartu; Alice pozik zegoen, ordea, eta hori zen momentu horretan garrantzizkoena. Nahikoa azkarra zen makina eta, konturatu zirenerako, helizeak desegiten zituen kotoi itxurako laino artean zebiltzan. Halako batean, Edinburgoko gaztelu misterioetsua ikusi zuten. Denbora pixkanaka aurrera joan ahala, Eskozia alde batera utzi eta Menorcarantz jo zuten bi abenturazaleak. Mantxako kanala igaro, eta Frantzia aldenik alde pasa zuten, ziztu bizian gainera. Menorcako uhartera heldu zirenean, harea zuridun hondartza paregabe batean lur hartu zuten; 1885eko ekainaren 21ean, hain zuzen ere. Hondartzako ur gardenak udako zeru argiaren kolorea zuen. Betaurrekoak kentzearekin batera, Bernard mapaz oroitu eta Aliceri erakutsi zion berehala.

-Bernard, bihozkada bat daukat, badakizu, emakumeok bakarrik izaten ditugun horietakoa ... Lepoa jokatuko nuke mapan ageri den "X" handi horrek ondoko hondartza markatzen duela. Gainera, izkina horretan dagoen egurrezko txalupa gorrian joan gaitezke bertara. – proposatu zuen Alicek.

Tresna magikoa alde batera utzi, eta arraun egiteari ekin zioten. 10 minututako bidaia liluragarrian mota eta kolore guztietako arrainak ikusi zituzten: horiak, berdeak, gorriak, urdinak ... baita zuriak ere! Inguruan, ez zen inor ageri. Kaio moduko hegaztiak ageri ziren, beren inguruan bueltaka; tarteka, ur azpian murgildu eta arrain txikitxoak arrantzatzen zituzten. Ondoko hondartzara iritsi ziren mapa eskuartean zutela, eta altxorren bila hasi ziren. Mapan argi ageri zenez, hondartzako zuhaitz etzanaren azpian egon beharko zuen altxorrak; eta halaxe izan zen. Zuhaitz bitxia aurkitu eta belar luzeen artean ... arrautza berdexka bat aurkitu zuten! Alicek etsipenezko aurpegia zuen, aitonak kontatzen zizkion piraten istorioetan agertzen ziren altxorren antzeko zerbait espero zuelako. Bernardek, hori ikusita, zera esan zion:

-Lasai Alice, altxorra ez da garrantzitsuena. Ezin hobeto pasa dugu eta ez zaigu inoiz ahaztuko bizitzen ari garen abentura ikaragarria! Goazen ondoko herrira eta arrautza hegaztien behatoki batean utziko dugu.

Izerdi patsetan eta tomateak bezain gorri iritsi ziren uharte barneko Ferreries izeneko herri bakartira. Heldu bezain laster, Sant Joan jaietan egin ohi den ospakizun batek harritu zituen: jende multzo handi baten erdian bi hankatan saltoka zebiltzan ondo erakutsitako zaldiak, gainean zaldun trebeak zituztela. Denborarik galdu gabe, aurrera jarraitu zuten hegaztien behatokiaren bila; halako batean, aurkitu egin zuten. Mr. Smithek, behatokiko arduradunak, ongi etorri beroa egin zien arrautza eta mapa benetakoak zirela konturatzean :

-Oh my god! Sir Edmund Kipling naturalistak hil aurretik idatzi zuen testamentuan aipatzen zuenez gero, Balear uharteetako gabai txoriaren habian arrautza aurkitzen zuenarentzat izango ziren bere ondasun guztiak; Kiplingek berak marraztutako mapa erabilia, betiere. – adierazi zien ahoa bete hortz geratu ziren anaia-arrebei. Poz-pozik itzuli ziren Eskoziara... abentura berri bat zuten kontatzeko.